



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko irailaren 13a

9. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da konpromiso sendoa, zalantzagabea eta lehen-tasunekoa izan dezan hezkuntza-sistema publikoarekin, berori garatuz eta hobetuz. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Castejón-Iruña abiadura handiko korridorearen obren hasierarekin zerikusia duen inongo jarduketarik ez dezan abian jarri. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iberdrolaren akzioei buruzko plan bat aurkez dezan lehenbailehen. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak nola ziurtatuko duen gauzatuko direla orain arte Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak eginkizun zituenak, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Sodenaren jabetzakoak diren Iberdrolaren akzioei buruz duen politikari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (7. or.).
- Galdera, jakiteko, Hitzarmen Ekonomikoaren ondorioz Estatuari egin beharreko ekarpena jasotzen duen kontusaila dela-eta, zein den 2011ko ekitaldirako gastu-aurreikuspen gaurkotuena, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (8. or.).
- Galdera, 2011ko ekitaldirako diru-sarreraren aurreikuspen gaurkotuenari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (9. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubidearen esparru ureztagarrian ureztalurrak ezartzeko eta hobetzeko proiektuaren egoerari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (9. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Parlamentuko Batzorde arrunten osaera (11. or.).

- Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldean parlamentari berriak sartzea (14. or.).
- Parlamentuak Nafarroako Eskola Kontseiluan edo Hezkuntzako Batzorde Nagusian dituen bi ordezkariak hautatzeko arauak (15. or.).
- Nafarroako Parlamentuak Moderna Fundazioko Patronatuan izendatu behar dituen bost kideak hautatzeko arauak (15. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da konpromiso sendoa, zalantzagabea eta lehentasunekoa izan dezan hezkuntza-sistema publikoarekin, berori garatuz eta hobetuz.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita konpromiso sendoa, zalantzagabea eta lehentasunekoa izan dezan hezkuntza-sistema publikoarekin, berori garatuz eta hobetuz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko irailaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Foru Erkidegoan hezkuntza publikoaren kalitatearen aldeko aitortza entzun diogu behin berriz Hezkuntza kontseilariari.

Hezkuntza eta biharko belaunaldien jarduera eta pentsaera ziurtatzeko dugun mekanismoa da. Hezkuntzari eskumen ugari aitortu dizkiogu jendartean bizikidetzeta eta biziraute egokiaren zuzendari izan dadin. Hezkuntza publikoa da hein honetan Administrazioak zuzenean curriculum eta baliabide egokien eskaintzarekin aurretik aipatutakoa bermatzeko duen lehentasuneko tresna.

Eskola publikoetan kalitatezko zerbitzua eskaintzea ziurtatu behar du hein horretan Administrazioak, baliabideen eskaintza egokia eginez kalitatezko hezkuntza sistemari.

Jakin badakigu une zailak direla ekonomiaren dako. Erabaki ausartak eskatuko dituela aurrekontuen taxutzeak egunerokoari aurre egiteko. Baina kontuan izan behar dugu aldi berean, murrizketa uneak izanen ditugun honetan, murrizketa horiek ahalik eta neurri txikienean izan behar dutela zerbitzu publikoen kaltetan.

Bide honetan ez dute asko laguntzen pasa den ekainean hezkuntza sailetik hartu diren hainbat erabaki eta lan dinamikak. Hain zuzen ere, langileen lan baldintzen makurtzea, gero eta baliabide gutxiago eskaintzea hezkuntzara, bete beharreko ordezkioak betetzeko konpromiso eza eta azkenean, lan publikoaren eskaintza murriztu eta eskolen gain uztea hainbat lan burutzea, zuzenean eskoletan hezkuntzan eragin negatiboa izanen duten neurriak hartuz. Azkenean, hezkuntza publikoan kalitatea ziurtatzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomikoen murrizketak zuzenean eraginen baitio kalitate horri.

Askotan entzun dugu Gobernuaren agintariengandik Nafarroako Hezkuntza une honetan punta-ko hezkuntza moduan onartua izan dela. Kontu hori horrela den edo ez ikerketa ezberdinek erakutsiko digute. Baina kontua da OCDEk 2007an (nazioarteko datu konparagarriak eskainitako azken urtea) aitortu zuela OCDEn hezkuntzarako gastu publikoa BPGren %5,2 izan zela eta Nafarroan %3,1 inguruan zegoela, Estatu Espainiarreko batez bestekoaren ondoan.

Europari askotan begiratzen diogu hainbat adierazlerekin eskualde aberatsenen pare gaudela esateko. Hezkuntzan egiten den diru gastuen adierazleek, ordea, ez dute hori bera esaten.

Gauzak honela, eta hobetzeko asko dugula begi bistan dagoenez:

Gure parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du konpromiso sendo, zalantzagabea eta lehenetsuneko izan dezan hezkuntza-sistema publikoarekin, berori garatuz eta hobetuz.

Iruñean, 2011ko abuztuaren 30ean

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Castejón-Iruña abiadura handiko korridorearen obren hasierarekin zerikusia duen inongo jarduketarik ez dezan abian jarri.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Castejón-Iruña abiadura handiko korridorearen obren hasierarekin zerikusia duen inongo jarduketarik ez dezan abian jarri.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko irailaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok eta Bakartxo Ruizek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengoan babesean, honako mozio hau aurkeztu dute parlamentu-taldeko eledun diren aldetik, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako Gobernuak jarduketak abiarazi ditu abiadura handiko trenaren korridorea (AHT) eraikitzeko; halatan, Castejón-Iruña tartean, Cadreitako eta Villafrancako herrien arteko tartean zehazki,

korridore hori eraikitzean okupatuko bide diren lurzatiak desjabetzeko aktak egiten hasi dira egunotan.

Aipagai dugun proiektu hori behin betikoz onetsi ahal izateko ordea, beharrezkoa eta are ezinbestekoa da, legeak hala ezartzen duelako, Ingurumen Ministerioak ingurumen-inpaktuaren adierazpena onestea. Ingurumen-inpaktuaren adierazpen hori –"Abiadura handiko trenaren ipar-ekialdeko korridorea. Castejón-Iruñerria tartea"–, hain zuzen ere, 2004ko apirilaren 16an onetsi zen behin betikoz, denbora nahiz formaren aldetik behar bezala izapidetu ondotik (2004ko maiatzaren 14ko 117. EAO); informazio-azterlana, berriz, 2004ko uztailaren 21ean onetsi zen behin betikoz (2004ko abuztuaren 9ko EAO).

Proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onesten duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuko 14. artikulua ezarri zuenez, ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren iraungidura bost urtekoa da, onesten denetik aitzina. Hortaz, aztergai dugun ingurumen-inpaktuaren adierazpena eta informazio-azterlana behin betikoz onetsi zirenetik –2004ko apirilaren 16a eta 2004ko uztailaren 21a, hurrenez hurren– bost urte baino gehiago igaro direnez gero, iraungita dago Castejón-Iruñerria abiadura handiko trenaren korridorearen gaineko ingurumen-inpaktuaren adierazpena.

Hartara, abiadura handiko trenaren aurreikusitako jarduketak juridikoki modu irregularrean hasiko dira.

Horrenbestez, egoera irregular hori aldeztu aurretik zuzentze aldera eta horren legezkotasuna garaiz bideratze aldera –bidenabar, Nafarroako

Administrazio Publikoari bere jarduketan ondorioz etor lekiokkeen kalte ekonomiko nahiz bestelako kalte oro ekidinen zaio–, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ez dezan inolako jarduketarik abiaraz Castejón-Iruña abiadura handiko trenaren korridoreko obrak hastearren –esaterako, lurzatiak

desjabetzeko aktak egitea–, harik eta legeek eta antolamendu juridikoak ezarritako ingurumen-inpaktuaren adierazpen berri bat behin betikoz onetsi arte.

Iruñean, 2011ko irailaren 1ean

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iberdrolaren akzioei buruzko plan bat aurkez dezan lehenbailehen.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Iberdrolaren akzioei buruzko plan bat aurkez dezan lehenbailehen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko irailaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako Foru Komunitatea, Sodenaren bitartez, Iberdrolaren akzio-pakete baten jabea da 2005az gero; 265 milioi euro inguru inbertitu ditugu bertan (zenbateko hori 2005ean ordaindutako prezioaren eta 2007an ordaindutako kotizazioaren estaldura-asegurua batura da –zorioneko aseguru–).

Urteotan dibidenduak jaso eta interesak ordaindu ditugu, baina gaur eguneko kotizazioari erreparatuta oso urrun gaude inbertitutakoa berreskuratzetik, une honetan tituluak salduz gero.

Aurreko legegintzaldiaren amaieran, zehazki martxoaren 17an, Nafarroako Parlamentuak mozio bat onetsi zuen, akzioak sal zitezela eskatzeko. Une hartan 5,90 euro inguru ordaintzen zen akzio bakoitzeko, gaur eguneko baliotik nabarmen goiti, baina inbertitutakoa berreskuratzeko adina ez oraindik.

Akzioen edozein jabe bezala, Nafarroako Gobernuak hiru aukera ditu: 1) Galera onartu, tituluak saldu eta funtsak beste lehentasun batzuei aurre egiteko erabili; 2) Saltzeko gutxieneko prezio bat ezarri eta itxaron –arriskua onartuta–, harik eta kotizazioa balio horretara iritsi arte; 3) Akzio horiek ez direla salduko onartzea, funtsezkoa delako Iberdrolako akzioak edukitzen jarraitzea.

Oraingoz, Nafarroako Gobernuaren asmoei buruzko zantzuak besterik ez dugu, hala nola zorpetu dela eta berme gisa akzioen parte bat eskaini duela. Halere, inbertitutako funtsen garrantziari erreparatuta, Nafarroako Gobernuari eska dakiokkeen gutxienekoa da Iberdrolaren egungo egoerari eta etorkizuneko aurreikuspenei buruzko azterlan sakona egin izana eta jarrera argi bat ezarrita edukitzea, azterlan horretatik ateratako ondorioen nahiz gaitzatzeko baldintzen azterketaren arabera (berezi, egungo egoera ekonomikoaren eta nafarren lehentasunen gaineko azterketaren arabera).

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Legebiltzar honetan ahal bezain azkar aurkez dezan Iberdrolaren akzioei buruzko jarduketa plan bat.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak nola ziurtatuko duen gauzatuko direla orain arte Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak eginkizun zituenak.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak nola ziurtatuko duen gauzatuko direla orain arte Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak eginkizun zituenak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko irailaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabal andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Kulturako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak nola ziurtatuko du Ikus-entzunezkoen Kontseiluak orain arte zituen eginkizunak beteko direla?

Iruñean, 2011ko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, Nafarroako Gobernuak Sodenaren jabetzakoak diren Iberdrolaren akzioei buruz duen politikari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Sodenaren jabetzakoak diren Iberdrolaren akzioei buruz duen politikari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia eta Ogasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2011ko irailaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernu-ko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer politika baliatuko du Sodenaren jabetzakoak diren Iberdrolaren akzioei dagokienez? Akzioak epe luzera mantentzearen aldekoa al da? Epe jakin batean prezio jakin batera iritsitakoan akzioak saltzearen aldekoa al da? Zein izanen lirateke prezio eta epe horiek?

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Foru parlamentaria: Manuel Ayerdi Olaizol

Galdera, jakiteko, Hitzarmen Ekonomikoaren ondorioz Estatuari egin beharreko ekarpena jasotzen duen kontusaila dela-eta, zein den 2011ko ekitaldirako gastu-aurreikuspen gaurkotuena.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko, Hitzarmen Ekonomikoaren ondorioz Estatuari egin beharreko ekarpena jasotzen duen kontusaila dela-eta, zein den 2011ko ekitaldirako gastu-aurreikuspen gaurkotuena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia eta Ogasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2011ko irailaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernu-ko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Hitzarmen ekonomikoari jarraikiz Estatutari egin beharreko ekarpena 517.013.301 eurokoa da urte osorako. Lehendabiziko sei hilekoan 249.052.825 euro ordaindu dira. Une honetan, zein da kontusail horren gastu-aurreikuspen gaurkotuena 2011ko ekitaldi osorako?

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Foru parlamentaria: Manuel Ayerdi Olaizola

Galdera, 2011ko ekitaldirako diru-sarrerren aurreikuspen gaurkotuenari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, 2011ko ekitaldirako diru-sarrerren aurreikuspen gaurkotuenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia eta Ogasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2011ko irailaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak, Legebiltza-

rreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernu-ko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak Batzordean ahoz erantzun dezan:

2011ko ekitaldirako diru-sarrerren aurreikuspena 244.388.000 eurokoa da, eta horri onura fiskaletako 112.861.249 euro gehituz gero, 357.249.249 euro ateratzen dira. Aurtengo lehendabiziko 6 hilabeteetan ez da diru-bilketarik izan; aitzitik, zergadunei 23.755.849 euro itzuli zaizkie, ustez sozietateen gaineko 2009ko zergatik heldu direnak. Une honetan, uztaila amaituta –alegia, zergadunek 2010eko ekitaldiari buruzko aitortpena aurkeztuta–, zein da kontusail horren diru-sarrerren aurreikuspen gaurkotuena 2011ko ekitaldi osorako?

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Foru parlamentaria: Manuel Ayerdi Olaizola

Galdera, Nafarroako Ubidearen esparru ureztagarrian ureztalurrak ezartzeko eta hobetzeko proiektuaren egoerari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ubidearen esparru ureztagarrian ureztalurrak ezartzeko eta hobetzeko proiektuaren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manuel Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Galdera: Nafarroako Ubidearen esparru ureztagarrian ureztalurrak ezartzeko eta hobetzeko proiektuaren egoera.

Euskadiko Kutxaren "Nafarroako Ekonomia, 2009" izeneko txostenean jasotako datuen arabera, Nafarroako Ubidearen proiektuak aurreikusi zuen 220 biztanlegune baino gehiago urez hornitzea eta urteztalur bihurtzea lehorreko 53.125 hektarea, Itoitz eta Ablitas bitarteko 177 kanalizazio-kilometroren bidez, adarrak barne.

Biztanleguneak hornitzeari dagokionez:

1. Zenbat biztanlegunetara iritsi behar zen hornidura eta zenbatera iritsi da egiaz?

2. Zer biztanlegune falta dira? Noiz aurreikusten da horietara iristea? Adierazi horiek banan-banan.

Lehorreko hektareak ureztalur bihurtzeari dagokionez:

1. Lehorreko zenbat hektarea bihurtu behar ziren ureztalur gaur arte? Zenbat bihurtu dira egiaz?

2. Zenbat sektore falta dira bihurtzeko? Zenbat hektarea falta dira sektore bakoitzeko? Noizko aurreikusten da horiek bihurtzea? Adierazi sektorez sektore.

Iruñean, 2011ko abuztuaren 30ean

Foru parlamentaria: Manuel Ayerdi Olaizola

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko Batzorde arrunten osaera.

FORU ARAUBIDEKO BATZORDEA

MAHAIA

Lehendakaria
 Román Felones Morrás jauna (SN)
 Lehendakariordea
 Manu Ayerdi Olaizola jauna (NaBai)
 Idazkaria
 M.^a Victoria Castillo Floristán andrea (UPN)

BATZORDEKIDEAK

Javier Caballero Martínez jauna (UPN)
 Carlos García Adanero jauna (UPN)
 Pruden Induráin Larraya jauna (UPN)
 Begoña Sanzberro Iturriria andrea (UPN)
 Sergio Sayas López jauna (UPN)
 Juan José Lizarbe Baztán jauna (SN)
 Jorge Urdánoz Ganuza jauna (SN)
 Patxi Zabaleta Zabaleta jauna (NaBai)
 Maiorga Ramírez Erro jauna (Bildu-Nafarroa)
 Bakartxo Ruiz Jaso andrea (Bildu-Nafarroa)
 Santiago Cervera Soto jauna (PPN)
 José Miguel Nuin Moreno jauna (I-E)

**ELKARBIZITZA ETA NAZIOARTEKO
 ELKARTASUNAREN BATZORDEA**

MAHAIA

Lehendakaria
 María Victoria Arraiza Zorzano andrea (SN)
 Lehendakariordea
 Fernando Ibiltzieta Olleta jauna (Bildu-Nafarroa)
 Idazkaria
 Carmen M.^a González García andrea (UPN)

BATZORDEKIDEAK

Javier Caballero Martínez jauna (UPN)

Eradio Ezpeleta Iturralde jauna (UPN)
 Carmen Ferrer Cajal andrea (UPN)
 Coro Gainza Aznárez andrea (UPN)
 Esteban Garijo Pérez jauna (UPN)
 Román Felones Morrás jauna (SN)
 Jorge Urdánoz Ganuza jauna (SN)
 Patxi Leuza García jauna (NaBai)
 Nekane Pérez Irazabal andrea (NaBai)
 Koldo Amezketa Díaz jauna (Bildu-Nafarroa)
 Ana Beltrán Villalba andrea (PPN)
 Marisa de Simón Caballero andrea (I-E)

**LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO
 PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO BATZORDEA**

MAHAIA

Lehendakaria
 Pedro Rascón Macías jauna (SN)
 Lehendakariordea
 Xabier Lasa Gorraiz jauna (NaBai)
 Idazkaria
 Jerónimo Gómez Ortigosa jauna (UPN)

BATZORDEKIDEAK

Javier Caballero Martínez jauna (UPN)
 Eradio Ezpeleta Iturralde jauna (UPN)
 Antonio Pérez Prados jauna (UPN)
 Amelia Salanueva Murguialday andrea (UPN)
 Begoña Sanzberro Iturriria andrea (UPN)
 Maite Esporrín Las Heras andrea (SN)
 Juan José Lizarbe Baztán jauna (SN)
 Patxi Zabaleta Zabaleta jauna (NaBai)
 Koldo Amezketa Díaz jauna (Bildu-Nafarroa)
 Víctor Rubio Martínez jauna (Bildu-Nafarroa)
 Eloy Villanueva Cruz jauna (PPN)
 Txema Mauleón Echeverría jauna (I-E)

EKONOMIA ETA OGASUN BATZORDEA**MAHAIA**

Lehendakaria
Pruden Induráin Larraya jauna (UPN)
Lehendakariordea
Bikendi Barea Aiestaran jauna (Bildu-Nafarroa)
Idazkaria
Samuel Caro Sádaba jauna (SN)

BATZORDEKIDEAK

M.^a Victoria Castillo Floristán andrea (UPN)
Carlos García Adanero jauna (UPN)
M.^a Isabel García Malo andrea (UPN)
Antonio Pérez Prados jauna (UPN)
Sergio Sayas López jauna (UPN)
Juan José Lizarbe Baztán jauna (SN)
Pedro Rascón Macías jauna (SN)
Manu Ayerdi Olaizola jauna (NaBai)
Juan Carlos Longás García jauna (NaBai)
Maiorga Ramírez Erro jauna (Bildu-Nafarroa)
Santiago Cervera Soto jauna (PPN)
José Miguel Nuin Moreno jauna (I-E)

**KULTURAKO, TURISMOKO ETA ERAKUNDE
HARREMANETAKO BATZORDEA****MAHAIA**

Lehendakaria
Coro Gainza Aznárez andrea (UPN)
Lehendakariordea
María Victoria Arraiza Zorzano andrea (SN)
Idazkaria
Nekane Pérez Irazabal andrea (NaBai)

BATZORDEKIDEAK

Ramón Casado Oliver jauna (UPN)
Carmen M.^a González García andrea (UPN)
José Antonio Rapún León jauna (UPN)
Begoña Sanzberro Iturriria andrea (UPN)
Sergio Sayas López jauna (UPN)
Román Felones Morrás jauna (SN)
Pedro Rascón Macías jauna (SN)
Patxi Leuza García jauna (NaBai)
Fernando Ibiltzieta Olleta jauna (Bildu-Nafarroa)
Aitziber Sarasola Jaca andrea (Bildu-Nafarroa)
Amaya Zarranz Errea andrea (PPN)
Txema Mauleón Echeverría jauna (I-E)

HEZKUNTZA BATZORDEA**MAHAIA**

Lehendakaria
Esteban Garijo Pérez jauna (UPN)
Lehendakariordea
Bakartxo Ruiz Jaso andrea (Bildu-Nafarroa)
Idazkaria
Jorge Urdánoz Ganuza jauna (SN)

BATZORDEKIDEAK

Ramón Casado Oliver jauna (UPN)
Coro Gainza Aznárez andrea (UPN)
Carmen M.^a González García andrea (UPN)
Amelia Salanueva Murguialday andrea (UPN)
Sergio Sayas López jauna (UPN)
María Victoria Arraiza Zorzano andrea (SN)
Pedro Rascón Macías jauna (SN)
Juan Carlos Longás García jauna (NaBai)
Nekane Pérez Irazabal andrea (NaBai)
Aitziber Sarasola Jaca andrea (Bildu-Nafarroa)
Amaya Zarranz Errea andrea (PPN)
Marisa de Simón Caballero andrea (I-E)

OSASUN BATZORDEA**MAHAIA**

Lehendakaria
Amelia Salanueva Murguialday andrea (UPN)
Lehendakariordea
Nekane Pérez Irazabal andrea (NaBai)
Idazkaria
Maite Esporrín Las Heras andrea (SN)

BATZORDEKIDEAK

Carmen Ferrer Cajal andrea (UPN)
M.^a Isabel García Malo andrea (UPN)
Esteban Garijo Pérez jauna (UPN)
Antonio Pérez Prados jauna (UPN)
José Antonio Rapún León jauna (UPN)
María Chivite Navascués andrea (SN)
Jorge Urdánoz Ganuza jauna (SN)
Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andrea (NaBai)
Maiorga Ramírez Erro jauna (Bildu-Nafarroa)
Bakartxo Ruiz Jaso andrea (Bildu-Nafarroa)
Santiago Cervera Soto jauna (PPN)
Marisa de Simón Caballero andrea (I-E)

**GIZARTE POLITIKA, BERDINTASUN, KIROL
ETA GAZTERIA BATZORDEA****MAHAIA**

Lehendakaria
 Jorge Urdánoz Ganuza jauna (SN)
 Lehendakariordea
 Aitziber Sarasola Jaca andrea (Bildu-Nafarroa)
 Idazkaria
 Ramón Casado Oliver jauna (UPN)

BATZORDEKIDEAK

M.^a Victoria Castillo Floristán andrea (UPN)
 Carmen Ferrer Cajal andrea (UPN)
 Esteban Garijo Pérez jauna (UPN)
 Pruden Induráin Larraya jauna (UPN)
 José Antonio Rapún León jauna (UPN)
 María Victoria Arraiza Zorzano andrea (SN)
 Román Felones Morrás jauna (SN)
 Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andrea (NaBai)
 Xabier Lasa Gorraiz jauna (NaBai)
 Bikendi Barea Aiestaran jauna (Bildu-Nafarroa)
 Ana Beltrán Villalba andrea (PPN)
 Txema Mauleón Echeverría jauna (PPN)

**LANDA GARAPEN, INDUSTRIA, ENPLEGU
ETA INGURUMEN BATZORDEA****MAHAIA**

Lehendakaria
 Begoña Sanzberro Iturriria andrea (UPN)
 Lehendakariordea
) Jiménez Hervás jauna (NaBai)
 Idazkaria
 Maite Esporrín Las Heras andrea (SN)

BATZORDEKIDEAK

Coro Gainza Aznárez andrea (UPN)
 M.^a Isabel García Malo andrea (UPN)
 Jerónimo Gómez Ortigosa jauna (UPN)
 Pruden Induráin Larraya jauna (UPN)
 Antonio Pérez Prados jauna (UPN)
 Samuel Caro Sádaba jauna (SN)
 María Chivite Navascués andrea (SN)
 Manu Ayerdi Olaizola jauna (NaBai)
 Bikendi Barea Aiestaran jauna (Bildu-Nafarroa)
 Fernando Ibiltzieta Olleta jauna (Bildu-Nafarroa)
 Ana Beltrán Villalba andrea (PPN)
 Marisa de Simón Caballero andrea (I-E)

SUSTAPEN ETA ETXEBIZITZA BATZORDEA**MAHAIA**

Lehendakaria
 Samuel Caro Sádaba jauna (SN)
 Lehendakariordea
 Víctor Rubio Martínez jauna (Bildu-Nafarroa)
 Idazkaria
 Eradio Ezpeleta Iturralde jauna (UPN)

BATZORDEKIDEAK

Ramón Casado Oliver jauna (UPN)
 M.^a Victoria Castillo Floristán andrea (UPN)
 Jerónimo Gómez Ortigosa jauna (UPN)
 José Antonio Rapún León jauna (UPN)
 Amelia Salanueva Murguialday andrea (UPN)
 Maite Esporrín Las Heras andrea (SN)
 Pedro Rascón Macías jauna (SN)
 Txentxo Jiménez Hervás jauna (NaBai)
 Patxi Leuza García jauna (NaBai)
 Koldo Amezketa Díaz jauna (Bildu-Nafarroa)
 Eloy Villanueva Cruz jauna (PPN)
 Txema Mauleón Echeverría jauna (PPN)

ERREGELAMENDU BATZORDEA**MAHAIA**

Lehendakaria
 Alberto Catalán Higuera jauna (UPN)
 1. Lehendakariordea
 Samuel Caro Sádaba jauna (SN)
 2. Lehendakariordea
 Txentxo Jiménez Hervás jauna (NaBai)
 1. Idazkaria
 Maite Esporrín Las Heras andrea (SN)
 2. Idazkaria
 Koldo Amezketa Díaz jauna (Bildu-Nafarroa)

BATZORDEKIDEAK

Javier Caballero Martínez jauna (UPN)
 Ramón Casado Oliver jauna (UPN)
 Carlos García Adanero jauna (UPN)
 Jerónimo Gómez Ortigosa jauna (UPN)
 Antonio Pérez Prados jauna (UPN)
 Begoña Sanzberro Iturriria andrea (UPN)
 María Victoria Arraiza Zorzano andrea (SN)
 María Chivite Navascués andrea (SN)
 Juan José Lizarbe Baztán jauna (SN)
 Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andrea (NaBai)

Patxi Zabaleta Zabaleta jauna (NaBai)
 Maiorga Ramírez Erro jauna (Bildu-Nafarroa)
 Bakartxo Ruiz Jaso andrea (Bildu-Nafarroa)
 Eloy Villanueva Cruz jauna (PPN)
 José Miguel Nuin Moreno jauna (I-E)

ESKARIETARAKO BATZORDEA

MAHAIA

Lehendakaria
 Carmen Ferrer Cajal andrea (UPN)
 Lehendakariordea
 Asun Fernández de Garaialde y Lazkano
 andrea (NaBai)
 Idazkaria
 Maite Esporrín Las Heras andrea (SN)

BATZORDEKIDEAK

Eradio Ezpeleta Iturralde jauna (UPN)
 M.^a Isabel García Malo andrea (UPN)
 Jerónimo Gómez Ortigosa jauna (UPN)
 Carmen M.^a González García andrea (UPN)
 José Antonio Rapún León jauna (UPN)
 Juan José Lizarbe Baztán jauna (SN)
 Jorge Urdánoz Ganuza jauna (SN)
 Patxi Leuza García jauna (NaBai)
 Maiorga Ramírez Erro jauna (Bildu-Nafarroa)
 Víctor Rubio Martínez jauna (Bildu-Nafarroa)
 Amaya Zarranz Errea andrea (PPN)
 Marisa de Simón Caballero andrea (I-E)

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldean parlamentari berriak sartzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 6an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita aurtengo irailaren 2an Esteban Garijo Pérez, José Antonio Rapún León eta Ramón Casado Oliver foru parlamentari jaunek eta Carmen Ferrer Cajal foru parlamentari andreak aurkezturiko idazkiak, non jakinarazten baita Unión

del Pueblo Navarro parlamentu-taldean sartu direla, hona ERABAKIA:

1. Idazki horiek jasotzat ematea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2011ko irailaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Parlamentuak Nafarroako Eskola Kontseiluan edo Hezkuntzako Batzorde Nagusian dituen bi ordezkariak hautatzeko arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legeko 4. artikuluko 1. idatz-zatikio j) letrak ezartzen duenez, Hezkuntza Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia kide hauek osatuko dute, besteak beste: Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordearen bi kideak, Batzordeak berak aukeratutak.

Iragan maiatzaren 22an Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak egin baitziren, foru lege horretako 6. artikuluekin bat Legebiltzarrak Nafarroako Eskola Kontseilurako bere ordezkariak hautatu behar ditu, Hezkuntzako kontseilariaren abuztuaren 23ko idazkian adierazitakoari jarraikiz. Hortaz, ordezkari horiek izendatzeko arauak onetsi beharra dago.

Horrenbestez, ondokoa ERABAKI DA:

Lehena.- Ondoko arauak onestea, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Eskola Kontseiluan edo

Hezkuntzako Batzorde Nagusian eduki beharreko bi ordezkariak hautatzeko:

1. Hautaketa Hezkuntza Batzordeko foru parlamentarien artean egingen da, txartel bidezko bozketak isilpekoaren bidez.

2. Aldi berean hautatuko dira bi ordezkariak, eta, zenbat ordezkari hautatu behar den, horrenbeste izen jarri ahalko ditu txartelean batzordeko kide den foru parlamentari bakoitzak.

3. Boto gehien lortzen dituzten bi parlamentariak izanen dira hautatuak.

4. Postuetakoren batean berdinketa gertatuz gero, berdinketa hautsi arte errepikatuko dira bozketak.

5. Hautagaiak aurkezteko epea **irailaren 15eko 12:00etan** bukatuko da.

Bigarrena.- Erabaki honen berri ematea parlamentu-taldeetako eledunei eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko irailaren

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako Parlamentuak Moderna Fundazioko Patronatuan izendatu behar dituen bost kideak hautatzeko arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Moderna Fundazioko idazkariaren idazkia –horren bidez, Nafarroako Parlamentuari eskatu dio Moderna Fundazioaren Patronatuan Legebiltzarraren izenean parte hartuko duten bost kideak izenda ditzan– eta Zerbitzu Juridikoen txostena, Eledunen Batzarrekin bat eta Erregelamenduko 37.1.9 artikuluekin bat, ondokoa ERABAKI DA:

Lehena. Nafarroako Parlamentuak Moderna Fundazioaren Patronaturako izendatu beharreko bost kideak hautatzeko arauak onestea. Hona haien testua:

1. Nafarroako Parlamentuak Moderna Fundazioaren Patronatuko kide izateko bost kide hautatuko ditu foru parlamentarien artean.

2. Parlamentu-taldeek, banan-banan nahiz batera, bost parlamentari osatutako hautagaitzak aurkeztu ahalko dituzte (bost parlamentari horietatik hiru sexu batekoak izanen dira, eta bi beste sexuak).

3. Parlamentu-taldeek idazki bat helaraziko diote Legebiltzarreko Mahaiari hautagaitzak aurkezteko, eta idazki horretan jasota ageriko da proposatutako hautagaien oniritzia.

4. Parlamentu-taldeek Patronatuko kide izateko hautagaiak aurkezteko epea **irailaren 15eko 12:00etan** bukatuko da.

5. Hautagaitzak aurkezteko epea bukatuta, Mahaiak hautagaitzak aldarrikatuko ditu.

6. Patronatuko bost kideen hautaketa Legebiltzarreko Osoko Bilkuran egingen da, bozketa isilpekoaren bidez.

7. Bozketa txartelen bidez egingen da, eta zenbat kide hautatu behar diren, horrenbeste izen jarri ahalko ditu txartelean parlamentari bakoitzak.

8. Mahaiak botoak zenbatuko ditu eta boto gehien lortu dituzten bost hautagaiak aldarrikatuko ditu.

9. Proposamenean eragina izan dezaketen balizko berdinketak boto kopuru bera lortu duten hautagaien arteko beste bozketa baten bidez ebatziko dira. Berdinketak bere horretan baldin badirau, boto kopuru bera lortu duten hautagaien arteko bozketak egingen dira, harik eta berdinketa hautsi arte.

Bigarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko irailaren

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera